



1968. URTEKOA EKAINAREN 7 HURA

Gaur ETAK lehen aldiz hil zuela eta Txabi Etxebarrieta etakidearen erailketa gertatu zirela 40 urte betetzen dira >4

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata 2008-06-07

VI.URTEA 1.454.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

'Tolosaldeko Baliabideen gida' kalean da, etorkinei zuzenduta

TOLOSALDEA Eskualdera iristen diren unean egin beharreko kudeaketetarako baliagarria izango da

TEKNIKARIA Goizeder Urbieta da Tolosaldea Garatzen agentziaren immigrazio teknikari berria 2



Goizeder Urbieta izango da Tolosaldea Garatzen agentziaren immigrazio teknikari berria. INIGO TERRADILLOS

Zizurkilgo eremuak hobeto ezagutzeko ibilaldia egingo dute bihar

ZIZURKIL 'Gure mendiak, gure iragana' lelopean txango polita egingo dute 3

Zazpi sari irabazi dituzte Amazabal institutukoek

LEITZA Hainbat arlotan lortu dituzte sariak, Hezkuntza sailak antolatuta 6

Aresokoak Almerian eta Granadan 7





IES Hernani BHI
A. Iturriaga & K. Labaka

A. ITURRIAGA Santa Barbara auzoa z/g - 20120 HERNANI - Tel.: 943 551188 FAXA: 943 552271
K. LABAKA Karmelo Labaka 7 - 0120 HERNANI - Tel.: 943 551958 FAXA: 943 330550
e-mail: institutua@hernanibhi.com www.hernanibhi.com



ELEKTRIZITATEA

Ekipo eta instalazio Elektroteknikoak (Erdi Maila)
Instalazio Elektroteknikoak (Goi Maila)

MEKANIKA

Mekanizazioa (Erdi Maila)
Proiektu Mekanikoen Garapena (Delineazio mekanikoa)
(Goi Maila)

AURREMATRIKULA EPEA EKAINAREN 2tik 13ra

Etorkinei zuzenduriko 'Tolosaldeko Baliabideen Gida' prestatu dute

Gizartea » Goizeder Urbieta Tolosaldea Garatzeneko immigrazio teknikari berria ere aurkeztu zuten.

INIGO TERRADILLOS

Eskualdera bizitzera etortzen diren etorkinei zuzendutako *Tolosaldeko Baliabideen Gida* dagoeneko kalean da. Tolosaldera iristen diren unean egin behar izaten dituzten kudeaketentzat izango da bereziki baliagarria Tolosaldea Garatzeneko eta Galtzaundik Farapiren aholkularitzarekin eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin egin duten gida.

Atzo eginiko aurkezpenean Elena Egigurenek, orain arte Tolosaldea Garatzeneko Immigrazio teknikaria izan denak, gida hau egitearen beharra eta helburuak azaldu zituen: «Ereite, Jatorkin, SOS Arrazakeria, Gurutze Gorria, Caritas, Abegi, EIN, Peñascal fundazioa, Tolosaldea Garatzen, Hirukide, Laskorain, Orixe eta Helduen Hezkuntzak osatzen duten Immigrazio Mahaian horrelako gida sortzeko beharra ikusi genuen, hona iristen diren lehen une hori errazago egiteko». Errolda zer den eta nola ateratzen den, osasun txartelanolatera, etxebizitza aurkitzeko eman beharreko pausoak, enpleguari buruzko aholkuak... topatu daitezke bertan.

Informazio baliagarri hori guztia gainera, 6 hizkuntzatan dago: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez, errumanieraz eta arabieraz. Gida eskualdeko udaletxe guztietan egongo da, eta gizarte zerbitzuetako sailetan ere bai. Horretaz gain, gida nahi duenak eskura izango du Tolosaldea Garatzeneko gaitan.

Berdintasuna eta adingabeak

Aurkezpenean Begoña Pecharroman Farapiren ordezkaria ere izan zen. Ikerketa soziokulturalak egin eta aholkularitza zerbitzua eskaintzen duen enpresa da Farapi, eta, hain zuzen ere, immigrazioari buruzko aholkuak ematea izan da eu-



Angela Alamo, Jose Luis Urdangarin, Jokin Bildarratz, Goizeder Urbieta, Elena Egiguren eta Begoña Pecharroman. I.T.

ren zeregin nagusian lan honetan. Pecharromanek adierazi zuenez «berdintasunak pisu handia du Tolosako Udalean, beraz, lan honetan ere garrantzi handia hartu du, adingabeen gaiak bezala».

Angela Alamo Galtzaundiren ordezkaria pasa den urtean ere Tolosaldea Garatzenekin elkarlanean egin zutela *Euskaraz hitz egiteko eskuliburua* gogoratu zuen, eta baliabideen gida ere hala egin dutela. «Oso gustura aritu gara lanean, eta prest gaude horrela jarraitzeko ere».

Immigrazio teknikari berria

Goizeder Urbieta izango da Tolosaldea Garatzeneko immigrazio teknikari berria, hau da, Elena Egiguren ordezkaria. Urbieta Gabirian aritu da orain arte etorkin adingabekoen zentroan teknikari bezala lanean. Hain zuzen ere, aste honetan hasi da lanean, eta bere zeregin nagusia 2008ko plana eta ekintzak gauzatzen eta kudeatzen laguntzea izango da. Atzoko aurkezpenean izan zen immigrazio teknikari berria eta Elena Egigurenek egindako lanarekin jarraitzea dela bere asmoa, eta zeregin ho-

rien artean, Immigrazio Mahaia-ekin jarraituko dutela azaldu zuen.

Bere aldetik, Jose Luis Urdangarin Tolosaldea Garatzeneko kudeatzaileak adierazi zuenez, «enplegu eta autoenplegu sailean geroz eta gehiago dira etorkinak, eta horregatik geroz eta garrantzi handiagoa ematen diegu». Farapi aholkularitza enpresaren laguntza ere izango duela immigrazio teknikariari gehitu zuen Urdangarinek.

Egindako lanari eskerrak

Bestalde, Jokin Bildarratzek, Tolosaldea Garatzeneko lehendakariak, eskerrak eman nahi izan zizkion Udalaren eta Tolosaldea Garatzenen izenean Elena Egigureni egin duen lanarengatik, eta baita *Baliabideen Gida* egiten parte hartu duten guztiei. «Etorkinak geroz eta gehiago dira gure eskualdean eta kopuru hori gehituz joango da, horregatik, beharrezkoa da pertsona bat edukitzea gai hau jorratzeko Tolosaldea Garatzenen; halaber, etorkinentzat gurean bizi ahal izateko oso baliagarria izango da dagoeneko eskura duten gida».

» LIBURUAREN EZAUGARRIAK

■ **Informazioa.** Eskualdeari buruzko datu geografikoak, erroldari buruzkoak, etxebizitza eskuratzeari buruzko aholkuak, etorkinak eta legedia, enplegua lortzeko aholkuak eta osasuna, hezkuntza, eskara, kultura, kirola eta elkartei buruzko datuak azaltzen dira.

■ **Hizkuntza.** Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez, errumanieraz eta arabieraz dago.

■ **Nola lortu.** Udaletxeetan, gizarte zerbitzuetan eta Tolosaldea Garatzenen bulegoan.



Goizeder Urbieta liburuarekin. I.T.

Voith Gorostidiko etxebizitzaren obrak ez dituzte geratuko

Hirigintza » Proiektuari helegitea jarri zion EAEk, eta epaia jakin bitarte obrak geratzea eskatu zuten.

ERRERAKZIOA

EAE-ANVk Voith-Gorostidiko etxebizitza proiektuari inpugnazioa jarri zioten pasa den urteko urrian. Hala, bi urte inguru barru jakingo den epaia jakin bitartean EAEko hautetsiek etxebizitzaren obrak geratzea eskatu zuten. Epaitegiak ez du onartu obrak geratzeko eginiko eskaera, «berandu egin zelako». Astelehenera arte dute erabaki horren aurrean helegitea jartzeko aukera, baina aurreratu dutenaren arabera, ez dute jarriko.

■ Laburrak

TAKEkoen bilera, ostegunean, Usabalen

KIROLA » TAKE Saskibaloi kluba datorren hilaren 25etik 29ra Rosaseko (Girona) Txapelketara egingo duen bidaia dela eta, hilaren 12an (osteguna) 19:00etarako bilera bat antolatuta du zuzendaritzak. Bidaia buruz sor daitezkeen zalantzak argitzean saiatuko dira. Usabal kiroldegiko areto nagusian izango da.

Hitza Txapelketaren partidak bihar eta etzi

PILOTA » Hitza Pilota Txapelketaren baitan gaur ondorengo partidak jokatuko dituzte: Renobales eta Bengoetxeak osaturiko bikoteak Andreu eta Iurretak osaturikoaren aurka jokatuko dute 11:00etan, eta Urrutikoetxea-Galarragak Etxeberria-Telletxearen aurka eta Oñsallo-Arraztoak Iraola Lopetegiren aurka egingo dute 20:00etan. Tolosako Beotibarren izango dira. Astelehenera, Bidanien Zinkunegi eta Jauregiren artekoa izango da 19:00etan.

TEMPHE
ILESPAINDEGIA

Lokariz, 3. oinarri Tolosako
Tel: 943 11 83 45

ZURE IRUDI BERRIA

GLOTODIDAKTIKA IKASTROA DONOSTIA

Teoria eta praktika
Ekainaren 30etik uztailaren 25era
eta Irailaren 1etik 26ra

Ordutegia: 09:00etatik 13:30era,
asteleheneratik ostiralera

Ikastaroaren prezioa: 300 euro
Izena emateko:
943-32 71 72 (Gipuzkoako AEK)

IZAN IRAKASLE AEKn!

æk

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

'Gure mendiak, gure iragana' ibilaldia egiteko aukera bihar

Zizurkil » Zarateko Benta trikuharria, Ezkeltzu gaineko lanak eta Aiako lurretan dauden Zizurkilgo baserriak ikusiko dituzte.



Estenagako Txurroa eta Aian dauden Zizurkilgo bi iriak. HITZA

IMANOL GARCIA

Herritar talde batek, Udalaren lan-kidetzarekin, ibilaldia antolatu du. *Gure mendiak, gure iragana* izenburupean. Joxin Azkue, antolatzailerak batek azaltzen duenez, «ez da mendi ibilaldi huts bat. Herria ezagutzeko du helburu, normalean joaten ez garen lekuetara joa-

nez. Ez dugu nahi ibilaldi polit bat egitea bakarrik, baita herriko ondasunak ezagutzeko ere».

Hiru leku bisitatuko dituzte bihar goizean eta bi ibilaldi mota egingo dituzte. Ibilaldi luzea egiten dutenek 08:00etan abiatuko dira Pedro Mari Otaño plazatik. Horiiek Zarateko Benta izeneko trikuharria bisitatuko dute. Ondoren bat egingo dute ibilaldi motzekoekin, 10:00etan, Azarolan. Ibilaldi motza egingo dutenek bakoitzak bere autoan joango da Azarolara. Hortik abiatuta Udalak Ezkeltzu gainean egindako lanak ikusiko dituzte. Ondoren, Estenagako Txurrorra igoko dira eta Zizurkilgo Aia parteko baserriak non dauden ikusiko dute.

Bazkaria Illarratxoetan (Moztane) egingo dute. Bakoitzak eramane beharko du jatekoa eta Udalak jarririko du edaria eta kafea.

Laburrak

Jaien balorazioa egiteko bilera asteartean

ANOETA » Festa batzordeak jaietako balorazioa egiteko bilera antolatu du. Datorren asteartean, hilak 10, egingo dute bilera, 19:00etan udeletxean. Dei egiten zaie herriko taldeei eta herritar orori bertan parte hartzera.

San Jose basilizian izango da meza igandero

BELAUNTZA » Belauntzako elizan konponketa obrak egiten ari direnez, igandero meza San Jose basilizian ospatuko da, betiko ordutan.

Martin Iturberen urrezko eztaiak apaizgintzan

IKAZTEGIETA » Martin Iturbek bere apaizgintzako urrezko eztaiak ospatuko ditu biharko elizkizunean. Meza 11:15ean izango da Ikaztegiako parrokian.

Gaueko Gurtzearen 100. urteurrena ospatuko dute

TOLOSA » Gaueko Gurtzea ezarri zela 100 urte igaro dira eta urteurrena ospatuko dute gaur Tolosan. 300 lagun inguru etorriko dira hainbat herrialdeetatik eta ehundik gora tolosarrek parte hartuko dutela espero dute antolatzaileek. 19:30ean Alde Zaharreko kaleetatik prozesioa egingo dute eta 20:00etan Santa Maria parrokian elizkizuna egingo dute, Juan Maria Uriarte gotzaina buru dela.

Leitzarnera irteera Hutsunea Betez-ekin

VILLABONA » Hutsunea Betez elkarrekin Leitzarnera irteera antolatu du bihar egun osorako eta nahi duen guztiari gonbita egiten dio parte hartzeko. 10:00etan aterako dira Olaederra kiroldegia irenontzatu. Bakoitzak bere bazkaria eman behar du.

Villabonako Olaederra kiroldegian ate irekien eguna izango da bihar

ERREDAZKIOA

Kirolari atekabaztako eguna egingo dute bihar Olaederra kiroldegian. Foru Aldundiak bultzatuta eta Villabonako Udalak eta Olaederrak antolatuta. Kirolean aritzeko ohitura sendotzea eta Villabonako kirol instalazioak ahalik eta jende gehienek ezagutzeko du helburua.

Horrela, kiroldegia jende guztiari libre irekita egongo da: igerilekua, hidromasaja, sauna eta gimnasioa, 09:00etatik 14:00etara. Igerilekuan puzgarriak eta ur gymkana egingo da haurrentzat, 10:00etatik 13:00etara. Cyclinga, 14 urtetik gorakoentzat, 10:00etatik 10:45era. 11:00etatik 11:30era haurrentzako jolasak material ezberdinekin. Ondoren, 11:30etik 12:00etara bossu eta fitball 14 urtetik gorakoentzat. 12:15etatik 13:00etara aquagym 14 urtetik gorakoentzat. Azkenik, mahai tenisa 11:30etik 13:00etara denontzat. Parte-hartzaile guztiak opari txiki bat jasoko dute.

Gipuzkoako Segaxapelketako saioa bihar Zizurkil

ERREDAZKIOA

Segalarien Gipuzkoako Txapelketako saioa, nazioarteko eran, egingo da Zizurkil bihar. Emakumezkoen mailan finala izango da eta gizonezkoetan kanporaketa saioa izango da.

Emakumezkoetan finala jokatu dutenak Turre Olano gazteluarra, Josune Gorostidi gazteluarra, Arrate Garin legorretarra eta Maria Luisa Gabirondo gazteluarra izango dira. Txapela janzteko favoritoak Gabirondo eta Garin dira. Bisail moztu beharko dituzte, 7x6 metrokoak. Ahal den azkarren eta txukunen moztu beharko dituzte.

Gizonezkoetan ariko direnak: Mikel Aranalde gazteluarra, Gariokitx Etxeberria amasarra, Andoni Goikoetxea gazteluarra, Jexu Mari Ormaetxea *Urki* orendaindarrak eta Arkaitz Arteaga baliarrandarra. Hauek 10x10 metroko bi sail moztuko dituzte. 18:00etan izango dira probak Aunibarko zelaian, Elbarrenatik Zizurkil gorako bidean.



Emausen Ekocenterrera bisita

AGENDA 21 » Aste Berdea dela-eta Ernioaldea Udaltalde 21ek antolatuta, herenegun Emausen Belartzako Ekocenterrera bisita gidatua egin zuten zenbait herritarrekin. 10 bisitariko taldea izan ziren bertan, gehiengoak Adunakoak eta Villabonakoak, eta Ekocenterraren funtzionamendua ezagutzeaz gain, kartoizko aulkiak egin zituzten, dena «oso giro onean». Ikusita bazela jendea joan ezinik gelditu zena, datorren ostegunerako, hilak 12, beste bisita bat antolatu dute. 10:00etatik 12:00etara izango da hau ere eta autobusa antolatuko da bertara joateko. Aurretik izena ematea eskatzen dute, 619 77 04 08 zenbakira deituz. HITZA

Iragarki laburrak

SALGAI

- **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. Interesatuek deitu: 657 23 00 11 edo 634 9194 82.
- **Etxeko lanak eta zaintzailea.** Emakume euskalduna behar dugu, etxeko lanak egin eta bi urte zaintzeko. 635 0457 98.

- **Zaintzailea.** Neska euskalduna behar da umeak zaintzeko. 685 72 20 47 eta 635 71 24 41.
- **Autoa.** 98 urteko Mitsubishi autoa salgai. 617 90 91 80.

LANA

- **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. Deitu 685 22 70 58 zenbakira.

Bai Euskarari Ziurtagiria
gu ziur gaude

1.500 erlitate bario partezko

ARAMBURU

Salgai (Alkiza). Etxe handia Iursailarekin. 4.000m², guztiz eraberritua.

Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Soldadu kalean, sartzeko moduan. (231.400€ / 38.500.000 pzia)

Salgai (Tolosa). Etxebizitza garajearekin, Trinkele auzoan.

Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Nagusia kalean, 1. llogialarekin sartzeko moduan eta beste eraberritze eta igogailurik gabe. (193.000€ / 32.000.000 pzia negoziagarriak)

Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Marin Jose Iraola kalean.

Salgai (Ibarra). Etxebizitza. San Ignazio auzoan, sartzeko moduan. (211.000€ / 35.000.000 pzia)

Salgai (Tolosa). Izaskun auzoan. (234.400€ / 39.000.000 pzia)

Salgai (Ibarra). Lokala. Euskal Herria kalean.

Salgai. Garajeak. San Frantzisko eta Amartzon (Tolosa) eta Idoiagan (Ibarra).

Salgai edo alokatzeko (Lasarte). Lokala, biniatutak, erdiguenean.

Alokatzeko (Tolosa). Etxebizitza, lurre auzoan, Trinkele plazan eta San Frantziskon.

Alokatzeko (Tolosa). Garajeak. San Frantzisko, Araba etorbidean eta Batiller Zalkibian.

Alokatzeko (Ibarra). Pabillio industrial. Leaburuko bidean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

ETAk lehen aldiz hil zuela eta Txabi Etxebarrieta etakidearen erailketa gertatu zirela 40 urte betetzen dira gaur. Pardines guardia zibilari Villabonan, eta Etxebarrietari Bentaundin egin zioten tiro.

Gure historia aldatuko zuen hura

NEREA URBIZU

Duela 40 urte eta gaurko egunez (ekainak 7) Tolosaldean gertaera latza izan zen: ETAko kidea zen Txabi Etxebarrieta bilbotarra Tolosako Bentaundin bi aldiz tirokatu zuen guardia zibilak: Tolosako ospitale-ara oso larri ailegatu zen eta han hil zen. Txabi Etxebarrieta ETAko lehen eraildakoa da bere historian. Aldi berean, ETAk hil zuen lehena ere hil zuten, Pardines guardia zibila.

Frankismo garaiko urte hartan (1968), Bentaundin gertatutakoa baino ordu batzuk lehenago, Villabona inguruan kontrol batetik ihes egin nahi izan zuten Etxebarrietak eta berarekin zihohan Iñaki Sarasketak. Egoera honetan, Jose Angel Pardines trafikoko guardia zibila tiroz hil zuen Etxebarrietak. «Guardia zibila, Seat 850 autoaren matrikula faltsua zela konturatu zen, eta honen aurrean, errefortzuak eskatzen hasi zen guardia zibila. Motorraren hotsa entzun zuen Txabik eta orduan tiro egin zuen», gogoratzen du Itziar Aizpurua Jokin Gorostidiren alarguna eta ezker abertzaleko militante historikoak.

Norbait hil zuen lehenengo etakidea eta hil zen lehen etakidea izan zen Etxebarrieta. Bilbotarraren heriotzak gizartean eragina izan zuen: «Erakundearen pertsona oso jantzia zen, nahiz eta 23 urte bakarrik izan. Txabi liderra izango zen, umila zen, itxura lasaiekoa, langileekin harremanak zituena, maita-



Jorge Oteizak egindako monolitoa Albizturtik Alegiara edo Tolosara joaterako bidegurutzean dago. A. IMAZ

garria zen. Euskal Herrirako oso pertsona garrantzitsua izango zen, lidergo handia izango zuen horietakoa».

Iñaki Sarasketak (Oñati) ihes egitea lortu zuen baina hurrengo egunean atxilotu zuten Errezilen. Kartzela zigorra bete zuen.

Ekainaren 7 hartako kronika bat

Jokin Gorostidi tolosarra zenarekin zegoen geratuta Txabi Etxebarrieta; Beasainen zuten hitzordua. Itziar Aizpurua Gorostidiren alargunak «kide eta lagun» zirela gogoratzen du eta «gauza asko zituzten komunean» gaineratu.

Beasainen zeuden geratuta:

«Txabi Donostiatik abiatu zen eta Jokin Eibartik: azken honek lehergailu batzuk zeramatzan gordeta Gipuzkoan ekintza batzuk egiteko. Biek liberatuta klandestinitatean egiten zuten lan», garai berdinean egon ziren gainera. «Beraien lana orduan, Meliton Manzanaskomisario torturazailerari jarraitpena egitea zen».

Etxebarrieta Seat autoan zihohan eta bi guardia zibilek Villabonako sarreran kontrolean gelditu egin zuten kotxea. Matrikula faltsuak zeramatzkiela konturatu ziren: «Txabi konturatu zen errefortzuak eskatzen hasi zirela eta motor baten hotsa sentitu zuen». Etxebarrietak pistola atera zuen

eta guardia zibiletako bat hil zuen: Pardines. «ETAko militante batek defentsa ekintza lehen aldiz egiten duena izango litzateke».

Azken egun hauetan Dignidad y Justicia elkarteak monolitoa kentzea eskatu du

Autoa hartu eta Tolosara iritsi ziren bi etakideak, eta laguntzaile baten etxean sartu ziren, «baina Txabi ez zegoen lasai han, ezta laguntzailea bera ere seguraski: tokia ezaguna zen, lehendik erabilia zegoen. Hortik atera nahi zuten».

Atera ziren handik eta Bentaun-



Seat 850 autoa. HITZA

di aldera jo zuten: guardia zibilen kontrol bat zegoen, «beraien zain zeuden». Dokumentazio faltsua zeraman Etxebarrietak eta papearak erakusten ari zen bitartean, bera hartu eta «paretaren kontra jo zuten eta buruan jipoitu zuten». Sarasketak bitartean alde egitea lortu zuen, eta Etxebarrieta bi aldiz tirokatu zuten, bularrean. Hala ere, ez zen bertan hil, Tolosako ospitalean baizik. «Ez zen defendatzen saiatu. Hilda zegoen, anaiak bere ahoan irribarre ezti bat zuela gogoratzen du. Iraultzaileak bezala joan zen; batzuetan Cherekin konparatzen dute».

«Une gogorrak»

Itziar Aizpurua «une gogorrak eta bortitzak» pasa zituela aitortzen du, «ez bainekien nor zen hil zutena: banekien Jokin eta Txabi batzekoak zirela, baina ezin nuen senarrarekin hitz egin». Baina gero, «Jokinekin hitz egiteko aukera izan nuen». Gorostidik Elgoibarren kontrol handi bat zegoela ikusi zuen, eta zerbaite gertatu zenaren susmoa zuen: «Autoarekin debekatutako kale batetik sartu zen eta autoa bertan utzi zuen. Etxe batean sartu zen eta orduan enteratu zen tiroketa bat izan zela, hau berehala Txabirekin lotuz».

Aizpurua Etxebarrietaren idatziaz egi gogoratzen ditu: «Oso jantzia zen filosofian, lan asko egin zuen denbora gutxian. Poemak ere baditu, oso onak. Ez zen intelektuala bakarrik, iraultzailea ere bazen. ETAREN V. biltzarrean kideek lehendakari hautatu zuten. Eusko herri langilea terminoa asmatu eta aurrera eraman zuen».

Monolitoa kentzeko eskaera

Jorge Oteiza eskulturgileak Txabi Etxebarrietaren omenezko monolitoa egin zuen, eta han dago ikusgai, Bentaundin bertan. Zehazki, Albizturrera joateko eta Alegiara joateko bereizten dituen errepeiden tartean dago, urobieren gainean.

Azken egun hauetan, Dignidad y Justicia elkarteak monolito hori kentzea eskatu du, «terrorismoaren biktimak iraintzen» duelako. Honen aurrean, Tolosako Udaleri bertatik kentzeko eskatu diote. Erantzuna ezezkoa izan da, «eremu partikular batean dagoelako eta ez dagokiolako Udalari».

Dignidad y Justicia bi gutun bidali ditu dagoeneko Tolosako Udalera, eta Audentzia Nazionalak hainbat datu eskatu dizkio Tolosako Udalari, tartean, Jorge Oteizak egindako Etxebarrietaren omenezko monolitoa jartzeko noiz erabaki zeneko osoko bilkurako akta.

euskarazko
zure-azoka

berehala gatoz

berriak 5 urte

Parte-hartzaileak

Mokaua
Beobide eta
Aukeroneko dantzariak
Anari
Ruper Ordonka
Aitor Mendilluze
Xabi Raya
Asier Otamendi
Xabier Silveira
Arnets Arzallus
Harkaitz Cano
Maialen Lujanbio
Kirmen Uribe
Kike Amonariz
Ilazki Serrano

berria
luzatu bostekoa

EKITALDI NAGUSIA

Ekainak 21, larunbata, 19:30ean
Donostiako Kursaleko Auditoriumean

Zatoz
gurekin ospatzera!

SARRERA DOAN • Sarrerak eskuratzeko: 943 30 40 30 • www.berria.info

Dirigimenezkoa da sarrerak aurrera ezarazteko ekarpenen 11 bario baten

berria

kutxa

CAN LARUNBATA

gogoratu

gogoratu

G Gutunak

Herriko hezkuntz proiektuaren alde

Egunkari honetan ekainaren 4an Ibarra Udalak argitaratutako eskutitza dela eta, honako hau argitu nahi nuke:

Gezurra dela udaletxe eta zuzendaria artean, Uzturpe Udala Haur Eskolaren inguruko adostasun batera iritsi denik. Haur Eskolaren inguruko erabaki guztiak Ibarra Udalak inposaturikoak izan dira, aspaldi erabaki legez. Honen eragin zuzena Partzuergo 0-2 tar-tearen zuesioa izan da. Gauzak hone-lak, bakarra ez, bi eredu izango ditugu hemendik aurrera; 0-3 zikloa hautsiko da.

Egia da inposatutako erabaki honek hainbat gairen negoziaketa bultzatu duela, baina eskenatoki honetan gauzatu dira aste hauetako bilera-rik: Emeterio Arrese erailkaren egokitzapen lanak 2 urteko umeak irailaren 1ean hasi daitezke; Partzuergo 0-2 tar-tea eduki beharreko ezaugarri buruzko aholkularitza; eta 0-2 tar-tea eta Ikastolaren arteko kooperazio-koordinazio hitzarmenaren marko baten ezarpena. Hauexek, eta ez besterik, izan ditugu hizpidetilerotan.

Udaletxe plenoan guraso batek esan bezala, "Ikastola eta udaletxea elkar ulertzea behartuta daude". Tamalez, ez dirudi udaletxe zinegotziak hortaz jabetzen direnik. Ez ditzagun gauzak nahasi eta are gutxiago herritarrek konfunditu. Izan zaitezte hartutako erabakiaren erantzule eta ez gaitzazue besteok zuen irudia garbitzeko erabili.

Ikastolako zuzendaria naizen aldetik, aldaketa berriek guraso eta ikasleengan izan edo eragin dezakeen kaltea gutxitzen saiatu naiz. Nolanahi, gurea, Ibarra Udalaren proiektu propioa eta sendoa dugulakoan nago oraindik. Berau bideratzea nire ardura handienetakoa bat da, eta denon laguntza ezinbestekotzat jotzen dut.

Beretan urte lazgarria izan da aurtengoa Uzturpe komunitate

kide guztiontzat. Gure proiektuaren oso atal garrantzitsua moztu digutela deritzogu; gure gorputzaren euskari nagusia, hain zuzen. Baina zauria sendatuko dela pentsatu nahi dut. Gure gorputza, zain, gihar eta azal berriez osatuko da. Nire kermen eta indar guztiak erabiliko ditut hala izan dadin.

Jokin Zugasti Gorostidi. Uzturpe ikastola eta Haur Eskolako zuzendaria.

Ibarra Udal Agintariak eta «eredu bakarra»

Ikastolako umeen afera aitzakitzat hartuta ezker abertzalea erasotzeko erabili dute Hiztara eta DVra bidalitako gutuna. Bertan harribitxi ugari azaltzen dira. Batzuk zerrendatutako ditugu:

«Normaltasun politikoa eskatzen dute, baina zinez ez dute nahi». Betiko erretolika, ezker abertzalea talde sadomasokista biltzaren definitzea. Sufritzea gustatzen zaigu, biktimarena egitea. Originaltasuna aspaldi galdu zuten akusazio horrek.

«Beldurra erabiliz boterea lortzeko». Gustu txarreko txistea da. Galdetu al zarete nola lortu duzuen zuek boterea? Herriko lehen talde politikoa legez kanpo utzita, bere kideak atxilotu, torturatu eta espetxeratu. Alkate legitimoak (Arrasateko kasu) epaileek erditik kenduta. Horrek bai beldurra.

«Goiko arraza direla sinestuta». Naziak deitzen diguzue, faxistak. Baina hemen faxista bakarra espainiar estatua da. Ez da adjetibazio huts bat. Espainiar estatua milioi bat hildako errepublikarren gainean, 1939ko garaipen militar faxistan eraturako estatua da. Trantsizioaren etzen hausturarik eman, hiltzaileek libre jarraitu zuten (Fraga, Martin Villa...), autodeterminazio eskubidea etzen onartu, langile klaseak zapaldu jarraitzen du, estatu terrorismoak bere horretan jarraitu du: Arregi, GAL, Zabalza, Joxi-Joxean, Ttotto, 18/98, Egunkaria, Unai Romano, Portu-Sarasola... Gu faxis-

moa borrokatzen duen Euskal Langile Herriko kideak gara, ez gehiago.

«Bada Ibarra beste eredu bakar bat. Pentsaera bakar bat, sentitzea, jardutea, beldurrarazteko, iraintzeko, mehatxatzeko, (...) hori da batzuek nahi duten pertsona eredu Ibarrarako». Ezta gutxiago ere. Aniztasuna errespetatzen dugu, arraza ezberdintasuna, askatasun erlijiosoa, eleaniztasuna. Ezker Abertzaleak orain dela 40 urte definitu zuen «euskalduna, Euskal Herriari bizi eta lan egiten duena» dela, beste etiketa edo gehigarririk gabe. Batzuek ezin dute gauza bera esan. Hori horrela izanda salatzeko eskubidea aldarrikatzen dugu: zapaltzailea salatzeko eskubidea, kolpatzen gaituen polizia eta esploratzen gaituen kapitalista salatzeko eskubidea, herriaren bozkaren arabera dagozkigun zinegotzi eta alkatezta karguak aldarrikatzeko eskubidea. Eta hor salaketa eta mehatxua nahastean dituzte botereko atalaian burbuxa barruan beraien «pentsamendu bakarrea» mozkortuta bizi direnak. Herriko paretetan komunikabideetan ixiltzen duten tortura salatzea maha-txua deritzaie, nabarmen larriagoa den tortura beraz aldiz ez dute txintik esaten. Demagogia hutsa.

«Karl Marxek ongi aurreikusitako gizartea kikilduta, apalduta dago eta zenbait gauzek lokartu egiten dute. Beldurraren bitartez eginitako alienazioak egiten ditu indartsu». Zuzenak dira Marx handiaren hitzak, baina aizue, Marx zuek ordezkatzen duzuen jendarte burgesaz ari zen!! Azala behar da genero torturari modu horretan buelta eman eta manipulatzeko. Noski jendarte kikilduta dagoela, beldurra lepahezurreraino sartua dago edozein proiektu alternatibotik dabilen herritarren artean edozein unetan Entzutegi Nazionalaren bukatu dezakeelako; Guardia Zibilarekiko panikoak geldiarazita eta gauetan lo eginezkin dituz milaka herritar; langileria beldur da legez dagoen greba eskubidea egikari-

tzeko enpresariaren mehatxuek baldintzatu; jendea beldur da manifestazio baketsuetara joateko ere, bertan txikitua izan daitekeelako. Horixe beldurra dagoela, estatu bortizkeriarekiko beldurra dago.

Eta bukatzeko azken harribitxia: «Nahi dutena da herria orain, ez den zer bait bihurtzea». Harrapatu gaitzue, onartzeri behartuta gaude, gure bekatu larria agerian geratu da, ezin dugu ezkatu jada: bestelako Ibarra bat nahi dugu, udal batzeten orain ez bezela euskeraz hitz egiten duena, erabakiak hartu aurretik herriko eragileekin konpartituko dituen, herriak bozkaitutako zinegotzi karguak errespetatuko dituen, proiektu txikitzaileen aurka egingo duena, herriko hezkuntz proiektuaren alde ariko dena, tortura eta polizia bortizkeria salatuko duena. Ibarra aurrerakoi eta euskalduna nahi dugu, herriaren atxikimenduan oinarritua.

Jon Mintegiaga, Aitor Garmendia eta Eneritz Mugerza. Ibarra.

Herriko hezkuntza propioaren alde

Guk begiak jasotzean, gure lehioetako pankartetan, «herriko hezkuntza proiektuaren alde» irakurtzen dugu eta ez udalako ordezkarietako diotena «eredu bakar baten alde».

Udalako ordezkarietako diote: «...hori da gure nahi duguna, hezkuntza eredu bakar bat Ibarra 0-16 urte bitarteko neska-mutilentzat; hori da, hain zuzen ere, aspaldi honetan aldarrikatzen ari garena...» Hori da justu geneukana eta zuek apurtu duzuen hartutako erabakiarekin.

Gu, Txumitxan behera eta plazan gora ibiltzen gara, horietakoak gara. Hau da, Ibartarrak!

Diozuen bezala, Ibarra haurrak Ibarra bertan hezi eta hazi behar dira, baina erroak dagoeneko bazeuden eta ibartarrak ziren eta kanpoko erakundearen laguntza (Partzuergoa) bilatzen ari zarete.

Guk gure herrikoak nahi ditugu, hau da, Ibarra Udaletxea eta Uzturpe Ikastola. Baina justu hau da gure arazo larriena, gure herriko udaletxea entzun gogor dago behin eta berriz berarengana hurbiltzen garen bakoitzean, honen adibide gisa 08-04-29ko plenoa.

Ibarra ikastolaren alde gauden asko eta asko oso desberdinak eta anitzak gara. Bakoitzak bere pentsakera politiko-ideologikoa du baina orainoan elkartu egin gara, ez ahaztu gutxienez 900 garelako! Eta noski, askeak gara eta ez gaude manipulatuko, helduak gara eta gainera jantziak. Irekiak gara, kultura dugu eta ahotsa dugu. Ez dugu horrelako ordezkari nahi ikusita nola funtzionatzen duzuen, a ze aurreiritzi eta ezjakintasunak dituzuen!! Mesedez, guri ez kendu hitza eta gure iritzia ematen utzi!

Zuek beldurra omen duzue, gure ere bai, eta ez nolana hiko, izan ere Ibarra txikienekin ari zarete jokatzeko eta hori ez dago onartzerik.

Edozein ikastetxetan (itunpeko, pribatu, zein publiko) egutegia, jangela, ordutegia, etab. ekainerako erabakita egoten dira eta gurasoei erakusten zaie. Zuek, bestelakoak zarete, eta irailaren hasiko zarete lan honekin. Baina, nola da posible? Udaletxe honetan ez al dago inolako zentzurik? Zer ari da gertatzen? Errazena. Guztioi jarri diguzue etiketa faltsu bat politikaz beterik eta honela uste baduzue isilduko garelako oso oker zaudete. Jarraituko dugu hitz egiten baina ez mehatxatzen edota iraintzen zuek egin dituzten bezala.

Jesus Mari Odriozola, Bitor Aizpuru, Esteban Turrillas, Jaione Bengoetxea, Antxon Urrestarazu, Zoren Basualdo, Miren Garmendia. Ibarra.

Belabieta kiroldegian gaur Uzturpe Eguna

Ibarra » Umeen ikasturte amaierako jaialdia, pilota finalak, bazkaria, haur jolasak, Toka txapelketa, DJ Bull eta gehiago.

ASIER IMAZ

Azken urteetako ohiturari jarraituz gaur Belabieta kiroldegian Uzturpe Eguna ospatuko dute ikastola eta haur eskolako, ikasle, guraso eta irakasleek. Hala eta guztiz ere, Eguna antolatzaileek herritar guztiei luzatu diete gonbitea.



2006. urteko Uzturpe Eguneako bazkaria. HITZA

Ekitaldi guztiak Belabietan

Gaur ospatuko den Uzturpe Eguneko ekitaldi guztiak Belabieta kiroldegian egingo dituzte.

Goizean haurrek ikasturte amaierako jaialdia egingo dute 11:00etan, nahiz eta 10:30ean elkartuko diren. Jaialdiaren ondoren pilota finalak jokatu dira eta 14:00etan bazkaria egingo dute.

Arratsaldean haur jolasak egingo dituzte, tailer, puzgarri eta abarrek. Toka Txapelketaren ostean, DJ Bull-ek musika jarriko du 19:00ak arte. 19:00etan berriz, «denak etxera».

» EGITARAUA

Ekainak 7, gaur

- **10:30.** Haurrak Belabieta kiroldegian bilduko dira.
- **11:00.** Umeen jaialdia kiroldegian.
- **13:00.** Frontoiari pilotako finalak.
- **14:00.** Bazkaria Belabieta kiroldegian.
- **15:30.** Haur jolasak.
- **16:00.** Toka Txapelketa.
- **17:00etatik 19:00etara.** DJ Bull-en emanaldia kiroldegian.



11:00 aldera abiatu ziren saria jaso duten ikasleak eta irakasleak, 12:00etan hasten baitzen sari banaketa. N. GARZIA

Amazabal institutukoek zazpi sari irabazi dituzte hiru arlo ezberdinetan

Hezkuntza » Hezkuntza Departamentuak antolatutako sariak dira eta atzo egin zuten sari banaketa, Iruñean.

NAIARA GARZIA

Atzo Leitzako Amazabal institutuko zenbait ikasle Nafarroako Hezkuntza Departamentuak antolatutako sari banaketara joan ziren, izan ere 7 sari irabazi dituzte departamentu honek antolatzen dituen arlo ezberdinetan. Ainara Saralegi, Edurne Zabaleta, Gorka Arraigo, Maialen Lizarraga, Julen Sagastibeltza, Jennifer Olano eta Arantzazu Lizarra bertan izan ziren, Pello Zestau institutuko zuzendariarekin eta beste 2 irakasleekin batera: Ana Agirre eta Arantxa Urbietza.

Irabazleek diploma bana irabazi zuten eta dirua. Ana Agirrek azaldu duenez, «jasotako dirua uztai-

laren 5a baino lehen xahutu behariko dute, beraiek nahi duten gauzetan: liburuetan, kirol-denda batean... horrelako tokietan».

Sari banaketa 12:00etan izan zen, Carlos III.a etorbidean dagoen Nafarroako Jauregian, Tronu Aretoa delakoan. Bertara familia-koak ere gonbidatu zituzten. «Normalean, gehien kasuan senideren bat ere han izaten da». Bai Ana Agirre bai Arantxa Urbietza sari banaketan izan ziren, hain zuzen ere saridunen irakasleak direlako.

Urtero Nafarroako Hezkuntza Departamentuko euskara atal-ak antolatzen ditu sari hauek. Agirrek adierazi duenez, «deialdia urtero egiten da eta gero sari banaketa kurtso amaieran egiten dute, Iruñean bertan».

«Kasualitatea izan da»

Ana Agirre irakasleak adierazi duenez, «kasualitatea da herriko hainbeste ikasle irabaztea. Nor-

malean batek-edo irabazten du, baina antolatzaileak ere harrituta zeuden, zentro bereko 7 ikasle ikaragarri baita». Antza denez, aurten beste urteetan baino ikasle gehiagok hartu dute parte lehiaketetan, «beraiek gehiago parte har dezaten saiatu gara, beraz ikasle gehiago aurkeztu dira eta ondorioz sari-tuak ere gehiago izan dira». Atzoko-koak narritaba arloan, poesian eta Jose Maria Satrustegi Etnografia lehiaketan sarituak izan dira, baina hauetaz gain, sari gehiago badira. Deklamazio lehiaketa ere antolatzen dute eta hau ere Leitzako Erleta eskolako ikasle batek irabazi du. Honetaz gain, bertso-paper lehiaketa ere antolatzen dute. Bost atal antolatzen dituzte urtero beraz, eta atzokoan Leitzako 3 arlo-tako ikasleak saritu zituzten. «Gure ikasleek, institutukoek, 4 arlotan hartu dute parte, denetan, deklamazio lehiaketan izan ezik eta bertso lehiaketan ez dute sari-rik irabazi». Beraz, arlo batean ins-

titutukoak ez dira aurkeztu (Erletakoak aurkeztu ziren arren eta sari bat irabazi duten arren), bertso-paper lehiaketan ez dute sari-rik jaso baina gainontzekoetan 7 sari lortu dituzte.

Ikasleak erakartzea kostatu egiten zaiela dio Agirrek. «Baina bada gauza bat erakartzen dituen eta da diruetan ematen dutela saria, beraientzat oso interesgarria da diru horigero nahi duten gauzetan gastatzea, bestela liburuak ez dituzte gustuko. Etnografia arloan, esaterako, Julenek 250 euroko saria du, eta dirua da, eta Jenniferrek, esaterako, 150 euro».

Irabazleak

Jose Maria Satrustegi etnografia lehiaketaren lehenengo saria (baxilergoan) Julen Sagastibeltza Lasartek irabazi du eta akzesita Jennifer Olano Zabaletak. Narritaba lehiaketari dagokionez, arlo honetan 4 sari eskuratu dituzte Amazabal institutukoek: lehenen-

go saria (DBH 1. eta 2. mailak) Ainara Saralegi Saenzek eta bigarren maila berean Edurne Zabaleta Sasturainek. DBHko hirugarren eta laugarren mailetan, berriz, lehenengo saria Gorka Arraigo Goikoetxeak lortu du eta bigarrena, Maialen Lizarraga Olanok. Azkenik, poesia lehiaketan Arantzazu

Hezkuntza
Departamentuko
euskara arloak
antolatzen ditu sariak

Sari banaketa 12:00etan
izan zen, Carlos III.a
etorbidean dagoen
Nafarroako Jauregian

zu Lizarra Saizarrek DBH lehenengo eta bigarren mailetako bigarren saria lortu du.

Jose Maria Satrustegi
Lehiaketa

Literatur eta poesia lehiaketak ohikoak izaten dira, baina etnografia lehiaketa bitxiagoa izaten da. «Lehiaketa honetan eskatzen dena da bakoitzak adineko pertsona bat aukeratzea, eta helburua da euskalkien grabaketa egitea, pertsonaren hizkera jasotzea eta hori transkribatzea. Hori da lehiaketara aurkeztu dena. Jenniferrek, adibidez, bere amaren ahizpaz egin zion elkarrizketa, eta Julenek ere bere ezagun bati egin zion elkarrizketa».

Lan honen helburua tokian tokiko hizkera jasotzea da. «Hori baxilergoko ikasleek soilik egiten dute, besteentzako lanketa zail xamarrak delako. Besteak, berriz, beste ataletara aurkeztu dira, narritaba, poesia eta bertso-paper lehiaketara».

Zuzenketak. Joan den asteazkenean argitaratutako alean Leitzako Udaleko Gizarte Zerbitzuak egotza lekuz aldatu zuela aipatu genuen, baina Berastegiko gizarte laguntzailea da hemendik aurrera Gaztainondo elkartearen egonen dena. Ekainean, astearte, asteazken eta ostiraletan eta uztailaren asteazken eta ostiraletan. Bestalde Villabonako Fleming eskolak ez ditu gaur bere jaiaren ekitaldiak Olaederra kiroldagian egingo, atzo HITZAn azaltzen zenez, Arratzaien dagoen kiroldagian baizik.

U Urteurrena

X. urteurrena

INA ZEBERIO

(1998ko ekainaren 5ean eraila)

Mugak haustea izan zenuen helburu. Zure bihotz zabalean milaka pertsonak aurkitu dute aterpe.

Lizartzako ezker abertzalea.



LIZARTZAN
2008ko ekainaren
7an

Bihar 13:00etan ekitaldia Gernikan; etzi, 13:00etan ekitaldia monolito aurrean.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Almeriako herrixkak ere ezagutu dituzte, Mojacar, Nijar eta Garrucha, esaterako... M. ILLARREGI



Almeriako Cabo de Gata natura-parkeko faroa. M. ILLARREGI



Almerian westernak grabatzen zituzten lekuan ere izan ziren. M. ILLARREGI



Elkarri agur esaterakoan malkoak ere izan ziren. M. ILLARREGI



Sorbasen, Karst kobazuloetan izan ziren. HITZA

Almeria eta Granada ezagutuz

Areso » Astebete igaro dute Aresoko ikasleek Andaluzian, Iturengo, Madrilgo eta Tarragonako beste zenbait ikaslerekin batera.

NAIARA GARZIA

Joan den astean *Eskola Ibiltarien* barruan Andaluziara joan ziren Aresoko bosgarren eta seigarren mailako ikasleak eta astebete igaro zuten Almerian eta Granadan, Iturengo, Tarragonako eta Madrilgo beste zenbait ikaslerekin.

Mikel Illarregi Aresoko eskolako zuzendaria hagitx pozik gelditua bertan izandako esperientziarekin. «Ateraldi honek helburu bikoitza zuen, bata didaktikoa eta zentzu honetan gauza asko ikusi eta ikasi ditugu. Beste helburuak bizikidetzarekin zerikusia zuen,

eta zentzu honetan ikasleak oso gustura sentitu dira».

Egunero programa oparoa izan dute, orduetegi zehatz batekin. Almerian hainbat gauza ikusi dituzte, bertako negutegiak, esaterako, bertatik Europa osora banatzen den alhondiga edo lonja bat, aztarna arkeologikoak ere ikusi dituzte, baita kobazuloak ere. Almeriako alde zaharra eta Alcazaba delakoa ikusteaz gain, bertako zenbait herrixka (Mojacar, Nijar eta Garrucha) eta hondartzak ere bisitatu di-

tuzte, eta hain ezaguna den Cabo de Gata natura-parkea, esaterako. Flamenkoak ere ikusteko aukera izan dute, baita lorategi botaniko bat ere.

Ostiralean Granadan izan ziren eta bertan aurrena Zientzien Parkea bisitatu zuten. Illarregik azaldu duenez, «gauza asko zeuden ikusteko, oso interesgarriak, baina denbora gutxi izan genuen». Izan ere, arratsaldean Alhambra eta Generalifea ikustera joan ziren. 3 ordu igaro zituzten bertan. Ostira-

lean izan ezik, gainontzeko egunetan Almerian izan dira eta garai batean western filmak grabatzen zituzten lekuetan ere izan dira, Tabernas izenekoan.

Larunbat gauean festa egin zuten eta elkarri opariak eman zizkieten. Ikasle bakoitzak, beste ikasleei kamiseta eta katilu bana eman zizkieten, eta ikastetxe bezala, argizaiola eta CD bat. Ikasleak oso gustura egon direla dio Illarregik eta elkarri agur esaterakoan malkoak eta guztiz izan zirela.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Nsei, The baltic sea eta Yakuzi musika taldeak ariko dira Bonberenean 22:30etik aurrera.
■ **Tolosa.** Alasdair Fraser & Nathalie Haasen irlandar musikariaren kontzertua Leidor aretoan 20:30ean.

Azoka

■ **Villabona.** Bigarren eskuko gauzen merkatua Berdura plazan 10:30etik aurrera.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Santa Maria parrokiako gau gurtzaren mendeurrena: 20:00etan meza Juan Maria Uriarte gotzainarekin, 23:25ean prozesioa Santa Maria plazan eta beste hainbat ekitaldi.
■ **Tolosa.** Harizpek Urkiolara irteera antolatuta du hilaren 13rako. Izen-ematea, elkartean 27 eurotan (ez bazkideek, 30 euro).

Antzerkia

■ **Tolosa.** Valenti Piñot-en *Una clase con Don Abili* antzezlanaren Amaroitz auzoan 20:00etan, Amaroitzko Antzerki astearren barruan.

Erakusketak

■ **Alegia.** Alegiako jubilatuen tabernan Noelia Crujeirasen margo-

A Agurrak



Urte askoan!

Ane Zuberu Errondosoro (Tolosa). Gaur 3 urte. Zorionak etxeko printzesari.



Urte askoan!

Haizea Iraola. (Gaur 7 urte). Zorionak panpoxin! Ondo pasa zuren eguna etxekoan partetik.

Zorionak!

Santi eta Malentxo. Heldu da eguna ospatzeko zilarrezko ezteiak. Gure zorionik beroena, familiaren partetik.

lan abstraktoak izango dira ikusgai hilabete osoan zehar. Asteartetik igandera bitarte.

■ **Tolosa.** Aitzol udal eskalategiaren 25. urteurrena dela eta, ikasle eta ikasle ohien lanen erakusketa ikus daiteke bertan.

■ **Tolosa.** Jose Luis Lopez Tolosaren margolanak ikusgai daude Itaie tabernan. Tolosa, Donostia, Donibane eta Errezilgo paisajek dira.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.

■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Zorionak!

Joxe Mari ta Josune. Gaur zuen ezkontza egunean. Ondo pasa eta muxu handi bat familia gurtiaren partetik.

• Bertan hezitako txerrikume errean espezializatua
• Asteburuko degustazio menua: 30€

Iriarte Jatebidea

Tel.: 943 683 078
Jose Mari Goikoetxea, 34 • BERROBI
www.iriartejatebidea.com • info@iriartejatebidea.com

DENAK
MESH BIKIN, GET GIR T EHT EARK

IGANADA 4, 20000 TOLOSA • 943 671 427

zeu
ileapaindegia

ileapaindegia berritua

har ezazu zure txanda
943 671 427

santa klara 8. Tolosa

txokoa
h

kontzerturako 4 sarrera pare zozketan

Ekainak 7
Larunbata
20:30ean
Tolosako
Leidorren

irabazleak:

- Josetxo Lasarte (Ibarra)
- Nekane Eizagirre (Tolosa)
- Nekane Agirrezabala (Tolosa)
- Lurdes Ulazia (Ibarra)

**Alasdair Fraser
eta
Natalie Hass**

